


www.noaua.com

Noaua !!




Abenduaren 8a,
Odol Emaileen Eguna



Abenduaren 12an hasiko da Mendi Astea

**Baserritarrengandik zure eskura
zuzenean
kamaratik pasa gabe!**



**NARANJAK
MANDARINAK
GAZTAINAK**




Alkartasuna
Nekazarri kooperatiba elkarteak
Ugarte Industrialdea 12
Tfnoa. / Faxe: 943 361 114
20170 USURBIL Gipuzkoa
alkartasuna@usurbil.com



Txirrikitutik !!

Datorren abenduaren 30ean 25 urte beteko dira Joxe Martin Sagardia Zaldia "Usurbil" herritarra Batallón Vasco Español talde para-poliziak hil zuela. 1980ko abenduko goiz hartan, egunero bezala lanera joateko autoa hartu zuen Joxe Martinek baina jarri zioten lehergailuaren ondorioz Joxe Martin hilotz geratu zen autoko burdin txikituen artean.

1976ko urrian polizia frantsesak Maulen atxilotu zuen beste bederatzi euskal errefuxiatuekin batera eta Yeu irlara konfinatu zuten 4 hilabetez, 40 egun espetxeratu eduki ostean. Ipar Euskal Herrira itzultzean, 1977ko maiatzean, berriz atxilotu zuten eta Porquerolles irlara konfinatu beste bederatzi euskal errefuxiatuekin batera. Argazkia orduko duzue, 1977ko ekainaren 7an aterata dago. Ezkerretik hasita: Miguel Makazaga, Jesus Zugarramurdi, Jabier Aia Zulaika (eserita), Jesus Arin Baztarrিকা (atzean), Joxe Martin Sagardia "Usurbil", Miguel Angel Apalategi "Apala", Jose Mari Zapirain, Vicente Villar Gurrutxaga, Jose Antonio Urrutikoetxea, Jose Angel Otxoantesana eta Angel Iturbe.



1977-06-07, Porquerolles irla (Frantzia)

Iturria: Txalaparta argitaletxea (Euskadi eta Askatasuna entziklopedia)

Zalao Arnaiz Ibareguren

Noaua!!

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
 Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
 Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com
 www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
 Publizitatea: Maider Alustiza, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregerai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
 Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Andatzak antolatutako irteera batean ateratako irudia.

Aurkibidea

INAZIO USARRALDEREKIN SOLASEAN **5. OR.**

SANTA ZEZILIREN OMENEZKO SAIOAK **10. OR.**

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA **11. OR.**

Buruntzaldeko udalek Euskarazko Produktuen Katalogoa argitaratu dute. 0-16 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat interesgarrienak eta egokienak diren argitalpenak biltzen ditu edizio berriak.



ATSEGINA URDANGARINEN KONTZERTUA **14. OR.**

ABENDUAK 8, ODOL EMAILEEN EGUNA **15. OR.**

GARI ZUZENEAN ARITUKO DA SUTEGIN **16. OR.**

MENDI ASTEA ANTOLATU DU ANDATZAK **19. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Zutabea !!



AITOR LANDALUZE

Bertsotan

Txaparreneako geltoki zaharreko sukaldean bildu dira. Abenduko goiz hotz haizetsu eta euritsua da eta geltokiko buruak sukaldeko atea irekitzen die, badaki boskote honek tertuli atsegina emango diola goiz aspergarri horren hasieran. Lehena iristen, ohi bezala, Juanjose Alkain Udarregi izan da, gainera bertso eskolako "borea" berak eramaten du eta ahaztu baino lehen txartelak erosi ditu:

- Manuel, bost txartel Bilbora.

Manuel, geltokiko burua, finalera doazela konturatu da eta, Atxurin baino; hobe dutela Boluetan jaitsi, han metroa bertan dutela eta hartzeko. Gero Sestao jartzen duen metroa hartzeko, eta Barakaldo BEC jartzen duen lekuan jaisteko. Udarregi saiatu den arren hainbeste izenekin galdu da, eta mesedez paper batean marra batzuen bidez idatz diezaiola eskatu dio.

Segidan Juanbautista Gaztelu iritsi da, bertso batekin agurtu ditu bertan zirenak eta kanpoan astoan gainean sagardo kaxa pare bat bazuela esan die. Heldu diren hurrengoak Olloki zaharra eta astoakin lagundu dion Zozua Aranburuko Xegundo izan dira. Hauek ere hamaiketako ederra ekarri dutela txistorra, tortillak, baita bakailoa ere.

Trena etortzeko gutxi falta dela eta, Juankruz Beloki, Motzarekin kezkatzen hasi dira, are gehiago Gazteluk, bezperan Hernanin bolo jokoa zuela gogoratu duenean. Trenak

Txikierdiko tunela pasa eta tutua jo duenean, azaldu da korrika, gainean poltsa handi bat zuela.

Azkenean trenean sartu dira Usurbilgo bertso eskolako beterranoak, Olloki, Udarregi, Zozua, Motza, eta Gaztelu, eskutan kartoizko txartela berdearekin. Egurrezko eserlekutan eseri eta kostata, baino azkenean lortu dute hamaiketako eta bestelakoak apal eta hankartetan jartzen. Bilborako bidea luzea da eta...

Bidaia modu atseginean pasatzeko berehala hasi dira hamaiketakoarekin, Orio parean. Zarautzen lehenengo bertsoekin hasi dira baina Elgoibarren eten dute saioa, Motzak desafio egin diolako gazte gaupasero bati. Motza bertsotan eta bolotan famatua izateaz gain, pultsulari izateagatik ere ezaguna zen, hargin lanbidea zuen eta harria etengabe jotzeak borrokarako ere moldatu zuen bere gorputza. Irabazi du, eta horrek noski gehiago piztu du giroa. Hortik Boluetara, finaleko porra eginez pasa dute denbora, Gazteluk Amets atseginez jarraitzen duela argudiatuz eta beste laurak Egañaren alde. Maialen ez dute aipatzen ere, emakume batek irabaz dezakeela pentsatzeak bertigo moduko bat sortzen die urdaila eta buru ingurutan.

Boluetara iritsi eta Txaparreneako geltokiko buruak Udarregiri marraztutakoa jarraitu dute, metro zuzena hartu eta Finalera iritsi. Eserleketan eseri direnean, ezin ukatu beren herriarekin pixka bat gogoratu direla.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

Zorionak Usurbil!

Azaroaren 5ean kultur etxearen irekiera ekitaldia ospatu zen. Bertan gertatu zena kontatu eta salatzeo herritar talde batek idatzi hau prestatu dugu.

Txalotu egin nahi dugu herritar gehienek eduki zuten jarrera. Zeren herritarren gehiengo bake-bakean joan zen kultur etxea ikustera. Nahiz eta batzuek sarrailak silikonaz bete... txistularien doinuak entzuten utzi ez... pankarta eskuan eta "lapurrak" oihuka-

tuz herritarrei kultur etxera lasai sartzea galarazi... nahiz eta batzuek megafonia oso altu jarri... herritarrei aretoan Usurbil buruzko proiektzioa patxadan ikusten utzi ez... eta "lapurrak" oihuka zezaten umeak xaxatu... laburbilduz, nahiz eta batzuek herritarren arteko elkarbizitza zapuztu nahi izan, herritarren gehiengo bake-bakean joan zen kultur etxea ikustera. Lezio ederra eman zenuten, elkarbizitza eta tolerantzia lezioa. Zorionak!

Bukatzeko gogoeta hau: kulturak batzen ez bagaitu nork edo zerk batuko gaitu?

P.D: Eskerrak eman nahi dizkiegu herritar askori, idatzi hau publikatu zedin eman diguten babesagatik. Arrazoi ezberdinengatik sinatu ez duten arren.

Jokin Zubiaur, Jabier Pikabea, Antton Pikabea, Iñaki Mujika eta José Ramón Zubiaur.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: abenduak 16. Idatzia ekartzeko azken eguna: abenduak 9.

Inazio Usarralde, Txapelketa Nagusiko gai-jartzaile “Finaleko bertsolari denak dira faboritoak”

Nerabezaroan sortu zitzaion bertsozaletasuna Inaziori, lehendik bertsoekin batere harremanik izan gabe: “Klabea Paotxa Irratia izan zen, Usurbilen izan zen irrati librea”. Lauzpabost lagun elkartuta Bota-punttuba bertso programa eratu zuten eta, orain, Bertsolari Txapelketa Nagusiko gai-jartzaileen taldean ari da parte hartzen.

NOAUA! Aurtengo txapelketan gai-jartzaile taldean zaude. Zertan oinarritzen da zuen lana?

Inazio Usarralde. Talde lana da, argi eta garbi. Gure lana antolatzaileak saioak non izango diren erabakitzen duten momentuan hasten da. Aurten maiatza aldera hasiko ginen lan egiten. Lehendik antolakuntza taldeak Txapelketarako zehaztuta dauzkan eginbeharretan oinarrituta gure lana gaiak jartzea da; eta gaiak jartzea bertsolariari bide bat sujeritzeko eginkizuna da. Bertsolariak zerbaiti kantatu behar dio gaur egun, eredu hori da indarrean dagoena. Zailena sortu beharreko gaien artean oreka mantentzea da: guztiei aukera berdintsuak ematen dizkien gaiak izatea eta tematika ez errepikatzea. Oreka bilatu behar duzu alde guztietatik, eta ez duzu asmatzen ia inoiz.

INAXIO USARRALDE

“Orain arteko saioetako maila ona izan da”

N. Nolako maila erakusten ari dira bertsolariak aurtengo txapelketan? Faboritorik ikusten al duzu?

I. U. Ona, nire ustez. Txapelketa izategatik, seguru aski, bertsolari bati baino gehiagori ez dio uzten den guzti hori erakusten; presioa eta urduritasu-nagatik, baina hala ere, egia da txapelketako saioa ez balitz bertsolariak ez



INAXIO USARRALDE ETA SEME-ALABAK, TXOKOALDEN.

lukeela bere burua hainbeste estutuko barruko hori ateratzeko. Uste dut, orain arteko saioetan ikusi dena, eta finalerdietan batez ere, maila ona dela. Faboritoak? Denak. Beno, lehendik hor daude bi garrantzitsu: Andoni eta Maialen. Eta ezin dugu ukatu horiek aurrean behar dutela egon; orain, horiek ere ezin dute fidatu, norbait etorri daiteke, Amets bat, edo Iturriaga bat, adibidez, egun ona etorri zaielako... Nik uste dut ez dela erraza faboritoetaz hitz egitea.

N. Hasi zinenetik hona, zenbatetan izan zara gai-jartzaile?

I. U. Ez nuke jakingo esaten, baina orain gutxiago nabil gai-jartzaile lane-tan. Neronek utzi dudalako, gainera nire bizimodu pertsonala ere aldatu da, eta agian ez naiz gehiegi mugitzen inork gai jartzera gonbidatzeko. Baina konturatu naiz gehiegi ere ez dela ona; uda partean izaten dira saioak, oso segidan agian, eta Usurbil bezalako herri batean San Joanak, Santixabelak, ondoren Santioak, Sanestebanak... Agortu egiten zara, eta uda garaian errepikapen batean erortzeko sentsazioa ere egoten da.

Paotxa Irratiaren garaian hasitakoa

NOAUA! Nondik datorkizu gai-jartzaile izateko grina?

Inazio Usarralde. Gu Paotxa Irratian hasi ginenean, programa bat egiteaz gain, bertsoen inguruan herri dinamika bat bultzatu nahi izan genuen. Horietako bat izan zen saio bat antolatzeari usurbildarrekin. Entzunda geneukan aurretik izaten zirela Saizarren usurbildarren arteko txapelketak eta baita herriz herriko erronka batzuk ere. 1986an “Bat eginik” nazio mailako euskararen aldeko kanpaina egin zen, eta Usurbilen 8-10 bat bertsolari animatu genituen parte hartzera. Gaiak ere jarri genituen, eta niri egokitu zitzaidan aurkeztea. Hori izan zen nire lehenbiziko jendaurreko saioa.





IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

Nik birziklatzen dut zuk?

Agur bat NOAUA!kide guztioi. Eurite garai Ahonetan errekatxoa urez gainezka datorren moduan, urak isurtzen dituen ibaiak ere angula jasotzailez josia ditugu. Eguraldiari beldur handiegirik ez diotela frogatuz gauero-gauero hemen ditugu angulazale hauek animalitxo horiek harra-patu nahian.

Aspaldiko eskakizunei helduz, beste behin ere pilak birziklatzeko ontzi baten premia gogorazi nahi diogu erabaki hori bere eskuetan duenari. Izan ere, ez da oso eroso pila zakua hartu eta Usurbila prozesioan joan behar izatea... Ea orain-go honetan gure hitzak aintzakotzat hartzen dituzten.

Txokoalden ondare historikoaren berreskuraketa lanak ere aurrera doaz. Hala nola, Torreko teilatua eta Guardetxearen berreraikuntzak ziztu



batean ari dira aurrera bidean. Ea itxuroso uzten dituzten.

Azkenik esan beharra dut NOAUA!ko azken alean Txokoaldeko kronika ez nuela nik idatzi Aloña Loidik baizik. Besterik gabe beste bat arte lagunok. Izan huntza.



ANA
URDANGARIN

Kaleberri

Erle Eguna

Igandean ospatu genuen 2005eko Erle Eguna, pena eguraldiatik askotan gauzak nahi ez bezala ateratzea. Baina plazara inguratu zen jendearen artean giro bikaina lortu zen azkenean. Goizeko 10:00ak aldera hasi ziren sal-tzaileak beraien produktuak postuetan txukun-txukun jartzen.

Egun honetan, denok dakizuen bezala, sekulako produktuak egoten dira salgai, denak natural-naturalak eta erlearekin zerikusia duten produktuekin eginak, hasi eztitik, xaboiak, txanpuak, kremak...

Eguardian egin ziren ezti txapelketak eta gozogintzako txapelketak jende dexente hurbilduarazi zuen bertara. Aurten, gainera, erle amak ekarri ditu, Zeledonon antzera, txapeldunen txapelak.

Nahiz eguraldiak ez lagundu batere, goiz osoan ez baitzuen atertu, balantze positiboa egin nezake. Nik behintzat ederto pasa baitnuen.



Hurrengo urtean eguraldiak lagunduko ote du! Ondo izan.

Urteari errepassoa eginez...

Zainen goxo egongo zineten aurreko aste-
buruan etxeko epelean, ezta? Batek baino
gehiagok Gabonetarako prestaketetan arituko
zen, gain-gainean baitauzkagu eta horretarako
tartetxo bat hartu beharra dago, ditzosozko lis-
tak direla eta ez direla, janarien zerrenda, eda-
riarena, opariena eta, nola ez, loteriarena.

Gaiarekin jarraituz, urte bukaerara iristen ari
garela esan genezake, beraz, bistadizo bat eman
diet aurtengo NOAUA!ko ale guztiei. Ondorengo
kexuak topatu ditut eta konpondu gabe edo
erdizka daudela konturatu naiz. 197
alean, adibidez, Saizarko bideguretzik gora eta
Saizar aldeko etxe inguruetan farolak falta zire-
la aipatu zen, gaur egun zonalde hori egoera
berdinean jarraitzen duela esan genezake. 201
alean, Ugarteko aldapak espalo'i egoki baten
premia zuela esan zen, dagoena oso estua denez,

haurren kotxeak ez dira sartzen eta oinezkoak
banan-bana bakarrik igaro daitezke. Arazo
honekin ere berdin jarraitzen dugu gaur egun.
211 alean, auzotik errepide nagusira dijoazten
eskaileak eta baita bertako geltokia zikin-ziki-
nak zeudela zioen kronikak, ba zorionez azken
kexu hau burutua dago baina, hala ere, gelto-
kiak zikin tankera dauka. Agian pintura pixka
batekin dotoreagoa geratuko litzakete edo
herrian jarri duten geltoki berria bezalako bat
ere ondo legoke, iluntasun sentsazio hori kent-
zeko. Arazo hauek urte amaierako konpontzea
zaila ikusten det baina garbiketa lanak noizean
behin burutzea komeni da, auzoa txukun-txu-
kun izateko.

Besterik gabe datorren urterarte agurtuko
naiz, 2006an izango baita nere hurrengo kroni-
ka. Ondo pasa jaiak...

Kalezar



AINARA
URIBE

Santa Zeziliri kantatuz

Egun berezia, musikazaleontzat eta kantua
Egustukoa dugunontzat. Aurten ere kon-
turtzerako etorri zaigu Santa Zezili eguna.

Azpimarratu nahi nuke Zumarte Musika
Eskolak, urte osoan zehar, herriko haur eta gaz-
teekin egiten duen lan bikaina. Ederki erakutsi
zuten hauek ere urte guztian egindako lana
Santa Zeziliko kontzertuan. Jaialdi ederra eskai-
ni zuten inauguratu berria den Kultur Etxean.
Zorionak eta orain arte bezala jarraitzeko ani-
moak zuzendariari eta baita bertan parte
hartu zuten guztiei ere.

Urtean zehar ere sarritan izaten dugu
etxepean ikasleen eskusoinu edo beste
instrumentuen soinuak entzuteko auke-
ra. Txiki-txikitatik hasten dira eta hau
garrantzitsua izaten da aurrera egin nahi
bada.

Bestalde parrokiak duen abesbatza ere
aipatu nahiko nuke, Irriu Abesbatza.
Ramon Udabe zuzendari lanetan aritzen
delarik hor ibiltzen gara ikasturte osoan

zehar entseguetan. Gero, egun berezietan,
parrokian kantatu ohi dugu. Santa Zezili aurre-
ko igandean zenbait abesti gozo abesteko para-
da izan genuen eta ondoren bazkari eder bat
egiteko aukera ere izan genuen.

Argazki hau duela hamaika urte ateratako
oroigarria da. Beraz, aspalditik datorren kate
bat da eta hemendik animatu nahiko nituzke
herritar guztiak lagun arte honetara bildu eta
kantatzera.

Atxegalde



MARIA
JESUS URBIETA





IÑAKI
LARRAÑAGA

Santuenea

Mikologiari buruzko hitzaldia

NOAUAn idazteko aukera eman didatenean, ez dut bi aldiz pentsatu baina, gaia aukeratzekoan, bi ez, hamar buelta eman dizkiot.

Egia esateko, bada bai mugimendurik gure auzoan azken aldi honetan. Berriro martxan jarri dira ikastaroak: yoga, dantza, margoa... Dagoeneko kultur gurpil hori bueltaka hasi da eta irekitzeaz dagoen Santuenea elkarteko lokalak ere bultzada berri bat emango diolakoan nago. Baina auzo dinamika honek ere lana eskatzen du eta hau gertatzen denean hor egon behar dugu, laguntzeko prest eta ez beste alde batera begira eta gutxiago, oztopoak jartzen. Auzo txikia da gurea (beti sentituko naiz bertakoa), lehen kirolean murgilduta egoten ginen, gehienak eskubaloiarekin eta orain, beste ekimen batzuk dauzkagu. Baina bai lehen eta bai orain ezin dugu dena bi edo hiru pertsonen gain utzi, ez da komenigarria inorentzat. Honen adibide garbia aurtengo festak izan dira. Hor erakutsi dute Ibai-Ondo elkartekoek eta



Daniel Palacios

Santuenea elkarteko "batzuek" zer den elkarlana, emaitza hor dago. Beraz, segi dezagun bide horretatik.

Gogoan izan, Santuenean elkartean ostiral honetan (abenduak 2) arratsaldeko 19:00etan mikologiaren inguruko hitzaldi bat izango dugula. Bertan herritar bat izango dugu hizlari: Daniel Palacios aditua. Gonbitea luzatuta geratzen da beraz.



ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Ehiza garaia

Konturatzerako pasa zaigu 2005 urtea ere. Negu giroan murgiltzen hasi gara: goizetako hotz eta izotzak, elurra egingo duenaren kezka/ilusioa... Dendetara joan besterik ez dago gabonak gainean ditugula ikusteko: mota guztietako turroi, polboroi, zuhaitz, argi, Olentzero, "Papanoel",... Bai, bai, urtea bukatzeaz dagoela, alegia. Laster hasiko gara kaleak argiz beteta ikusten eta gabon kantak kalean entzuten. Familiarekin egoteko egunak izaten dira hauek eta nola ez: bazkari, afari,...

Baina gabon kontuak utzita, gaurko honetan ehizaz hitz egin nahi nuke. Ez naiz hasiko honen inguruko nire iritzia ematen baina badut zerbait esateko honen inguruan. Antzematen da ehiza garaia hasi dela. Goizetan izaten den tiro-hotsa entzutea besterik ez dago. Baina honetaz gain, nahikoa da lurrera begiratzea hori antzemateko.



Gure etxe inguruan behintzat kartutxo bat baino gehiago aurkitu ditugu zelaietan, baratzean,... Eta baita kartutxoek jakak ere. Hainbeste kostatzen al da erabilitakoa jasotzea? Mesedez saia gaitzen gure ingurua pixka bat zaintzen, nonbait erreza goa da eta norbere lurak zikindu baino, besteez zikintzea.

Angula garaia

Udazkenean aurrera goazen honetan, berriz ere agertu dira ibaian gora eta behera gau osoan zehar ibiltzen diren ontziak. Ez hotzak eta ez euriak, ezerk ez ditu etxean gerazten. Gaua joan eta gaua etorri, A8 errepidean baino trafiko eta argi gehiago izaten da. Badira oraindik ere bazterretik aritzen direnak beraien farola eta txitxardin askeekin. Besteak, ordea, Orioko zubipetik hasi eta Txokoalderainoko joan etorrian ibiltzen dira ibai osoa arakutzen. Ontziak bi aldeetara garabiak eramaten ditu eta hauetatik zintzilika bi sare handi. Horrelako 30 ontzi gora eta behera ibilita zirrikiturik ere ez dela arakatu gabe geratzen esango nuke.

Uda honetan ikusi dugu Euskal Herriko arrantzaleak antxoaren arrantzaren geldiera aurrera eramaten. Antxoa edo bokarta ia dese-

gertzeaz dagoela eta beraien kabuz erabakitako egitasmoa izan zen. Noiz pentsatuko dugu guk ere horrelako zerbait? Angularen eskasia ez da oraingo kontua. Aspaldiko urteetan ez dagoela entzuten ari gara. Prezioei begiratu besterik ez dago. Akaso, angularekin ere geldialdi bat egingo bagenu berriz ere ugarituko litzateke, ezta?

Bestalde, bada oraindik lortu ez duten beste misterio bat angularen inguruan. Angulen aztegiak, alegia. Gulak eta antzekoak jatera gutako asko ohitu gara baina angulen aztegiak ez ditugu ezagutzen oraindik. Kanada aldean eta ba omen dira baina hona oraindik ez dira iritsi. Urrezko xomorro preziatu horiek eskuratzeko beste bide bat izan daiteke. Ea zerbait egiten dugun, Oria ibaiari atsedean piska bat ematen diogun eta gure urak gehiago zaintzen ditugun.

Aginaga



LONTXO
ZUBIRIA

Galdutakoak (eta beste)

Galdutakoak ugariak izan dira azken asteotan Zubietan; inork ikusiko balitu, mesedez, arren eta otoi, deitu telefonoz.

- Kanaloï puska batzuk eta hauek lotzeko piezak. Handi baserriaren pareko errebueltan erriak. Aurkituz gero, deitu Ameriko Gure Ametsera, mesedez.

- Oilagorra: hilaren 23an, arratsaldeko bost t'erdietan ikusia, Irubietta Berri baserriaren gainetik pasean. Inork ikusiko balu, azkar deitu! Bestela eguraldi honekin pulmoniak joko du gure bizilaguna. -Plaza ingurukoei: oilagor horrek jabea badu, aizue!-

- Mendi pista bat. Andatzarako bidean zegoena. Besteak beste, Ernioko erromeriara joateko erabiltzen genuena. Natura pixka bat harantzago, urrutirago eramango duen errepideari leku egiteko galdua.

- Eskutitzak. Asko dira falta direnak. Eta askoz gehiago norberarentzat izan gabe iritsi zaizkigunak. Horrela ibiltzen gara gu: trukean, kartak faltan, eskutitz trukean.

(Inork ikusiz gero Trafiko Saileko niretzako gutuna, mesedez, ez deitu).

- Egonarria. Pazientzia. Batez ere Irubietta baserriko gizonezkoek galdu dutena. Etxeko andreak ez daki etxeko gizonezkoek galdutakoa den ala ez: ezin galdu sekula izan ez dutena. Hala ere, eskertuko luke etxeko andreak lasaitasun pixka bat emango liekeen edozer.

- Ekonomia pizteko makina. Petritzaberrin, galdu ez badute ere, gogo onez hartuko lukete. Ahal dela hurrengoan ere etxea kez bete aurretik.

Oharra: Gabon eguneko kantuak prestatzeko abenduaren 2an, ostiralean, arratsaldeko 19:00etan Eskola Txikitan bilduko gara.

Zubietta



PELLO
ARANBURU

Eguraldi txarrari aurre eginez, jende ugari ibili zen Erle Egunean

Etxean egoteko eguraldia tokatu zen arren, asko izan ziren Eurretakoa hartu eta Erle Egunaren zazpigarren ediziora hurbildu zirenak. Ezti eskaintza zabala, argizariz eginiko zein erleekin lotutako hainbat produktu eta erlegintzaren inguruko informazio ugari aurki zitezkeen Dema plaza inguruan jarri zituzten postuetan.

Goiz osoan izan ziren ikusgai hainbat produktu eta baita eskuragai ere; hala nola, gozogintzako hainbat produktu, kandelak... Hainbat sari ere banatu ziren. Epaimahaiko kideak hauek izan ziren: David Asensio futbol jokalaria usurbildarra, Niko Lizeaga aktorea, Mugaritz jatetxeko Andoni Luis Aduriz sukaldaria eta baita Martin Berasategi, Gorka Txapartegi eta Alberto Elortza sukaldariak ere.

Julen Sainz ordiziarrak irabazi zuen Euskal Herriko bostgarren ezti txapelketa, ezti loreanitzaren atalean. Jon Barriola hernaniarrak, aldiz, lorebakarreko ezti atalean garaile izendatu zuen epaimahaiaik.

Enkantea, 2.000 eurotan

Urtero bezala, lehiaketako bi ezti poto horien enkantea egin zen. Hasierako prezioa 100 eurotan ipinita, eta norgehiagoka luze samar baten ondoren, 2.000 euroren truke eraman zituen bi ezti potoak epaimahaiko kide batek: Zelai Zabala jatetxeko Alberto Elortza sukaldariak. Bestalde, argazki zein ezti egindako gozogintza lehiaketetako sariak ere banatu zituzten. Egun euritsu baina gozo horri amaiera emateko, Aginaga Sagardotegian bazkari ederra izan zuten, Erle Lagunak taldekoek antolatuta.



LUIS ADURIZ ETA NIKO LIZEAGA,
EZTI LEHIAKETAKO GARAILEEKIN.



EGURALDI TXARRAK EZ ZITUEN
SALTZAILEAK UXATU.

Mendebaldeko Sahara, egoera larrian

Munduan zehar injustizia pairatzen duten herrialdeei elkartasuna adierazi nahian, talde bat osatu da Usurbilen. Iaz, Palestinari buruzko jardunaldiak antolatu zituzten. Aurten, Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoari bizi duen egoera izan da hizpide nagusia.

Saharan bizi duten egoeraren aurrean ez-jakinak garenontzat, oso interesgarriak izan dira Usurbilen egin berri diren jardunaldiak. Saharar Presoen eta Desagertuen

Senideen Elkarteko kide bat hurbildu zen Sutegi Kultur Etxera. Mohamed Laabeid sahararrak "Mendebaldeko Sahara: noiz arte?" liburua aurkeztu zuen. Hitzaldia baino lehen, errepresioaren testigantzak biltzen dituen DVDa ikusteko aukera izan zen.

Hori azaroaren 23an izan zen. Azaroaren 26an, larunbata, elkartasunezko ekitaldia egin zen Artzabalgo parkean, iaz landatutako olibondoaren aldamenean. Fronte Polisarioko ordezkariari harrera egin zitzaion eta ekitaldi honek Sutegin izan zuen jarraipena.



AZAROAREN 26AN ELKARTASUN
EKITALDIA EGIN ZEN ARTZABALEN.

Bazkari batekin amaitu ziren Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoari buruzko jardunaldiak.



Berritua dator Euskarazko Produktuen Katalogoa

Haur eta gaztetxoentzat disko, liburu eta jolas interesgarrienak bildu dira

Buruntzaldeko udalek Euskarazko Produktuen Katalogoa argitaratu dute. 0-16 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat interesgarrienak eta egokienak diren argitalpenak biltzen ditu edizio berriak. Lehen aldiz, Euskal Herri osoan hedatuko da hizpide dugun katalogoa. Nafarroa izan zen aitzindaria eta duela bost urtetik hona, Buruntzaldeko herrietan banatzen da. Aurten, Iparraldean ere hedatuko da Euskarazko Produktuen Katalogoa.

Katalogo honen bultzatzaileek lau helburu lortu nahi dituzte:

1.- Gurasoei ikusaraztea euskarazko eskolatzarekin bakarrik ez dela ziurtatzen haurra euskaldun osoa eta euskal kulturaren errotua heztea, eta honi lagundu ahal dioten alderdi eta euskarri batzuk ere kontutan hartu behar direla, aisialdiko jarduerak euskaraz egitea, esaterako.

2.- Gurasoei ikusaraztea aukera handiak daudela haurrari euskal heziketa emateko, nahiz eta haiek euskaraz ez jakin.

3.- Haur eta gaztetxoei aisialdiko euskarazko produktuen eskaintza eza gutzera ematea.

4.- Produktu hauen gainean izan



MUSIKA, LITERATURA, JOLASAK... OPARIAK EUSKARAZ EGITEKO AUKERA ZABALA DA.

ARGAZKIA: NOAIA!

litekeen eskaera ugaltzea, euskarazko zerbitzu eta produktuen merkatua dinamizatuz eta indartuz.

Aukera anitza

Katalogoak dakartzan produktuak haur eta gazteentzat dira, 16 urte bitartekoentzat. Musika, literatura, informatika, jolasak, zinea eta abar agertzen dira katalogoan gaika sailkatuta, eta

produktu bakoitzaren izena, argitalertzea, eta gutxi gora-beherako prezioa ematen ditu; batzuetan, zein adinetarako egokia den ere bai. Gazteek eta gurasoek interesa izango dutela pentsatuta prestatu da, eta horregatik, badira helduei zuzendutako zenbait produktu ere: haur txikiei kontatzeko ipuinak, haurrekin jolasteko kantuen bildumak...

Inoizko katalogorik zainduena

Aipatzekoa da produktuak aukeratzeko Aegin den lana. Sustatzaileek ez baitiote begiratu euskarazko produktu izateari bakarrik, egokitasunari ere garrantzia eman zaio. Euskara teknikari talde batek adi-adi jarraitu du katalogo berriaren prestaketa-lana (Nafarroako hiru teknikarik, Gipuzkoako batek, Bizkaiko batek eta Arabako beste batek). Argitalertxeari adin-tarte honetarako egokiak diren produktuen zerrenda eskatu zaie. Ez hori bakarrik. Euskara teknikarien lantaldeak zerrenda hau bere irizpideen arabe-

ra eta aditu baten laguntzarekin galbahetik pasa eta hautaketa bat egin du. Horregatik, merkatuan dauden euskarazko produktu txukun eta interesgarrienak aurkituko ditugu katalogo honetan.

ARGITALPEN ZAINDUA

“Euskara teknikari talde batek adi-adi jarraitu du katalogo berriaren prestaketa-lana”



Non eskuratu daiteke katalogoa?

Katalogoa eskuratzeko modu bat baino gehiago dago. Herri batzuetan, Usurbilen adibidez, 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei etxera bidaliko zaie katalogoa. Beste herri batzuetan, berriz, haur eta gaztetxoei eskura emango zaie ikastetxean edota liburutegi, liburu denda, kultur etxe, udaletxe edota eskalategietan. Beraz, modu batera edo bestera, udalek bideak jarri dituzte 16 urte bitarteko haur edo gaztetxo guztiek katalogoa eskura dezaten.

OLENTZERORI GUTUNA

“Olentzerori gutuna idazteko ereduak dakar aurtengo katalogoak”

Interneten ere ikusgai

Zenbait berrikuntzarekin dator aurtengo katalogoa. Nahi izanez gero, produktuen kontsulta erraza egin daiteke sarean ere, honako webgunean: www.katalogoa.org



AISIAN ERE, GAZTEEK EUSKARAZ ARITZEKO AUKERA UGARITUZTE.

ARBAZKIA: NOAIA!

Gabonak gainean dira eta

Olentzerori gutuna idazteko garaia da. Baina ez larritu. Eskutitza prestatzea errazagoa izango da aurten, gutuna idazteko ereduak baitator katalogoaren atzeko aldean.

Lehen aldiz, Euskal Herri osoan hedatuko da

Euskara zerbitzuen ekimenez, 5 urtez jarraian plazaratu da Euskarazko Produktuen Katalogoa Buruntzaldean. Dena den, lehen katalogoa Nafarroan atera zuten 1997 urtean. Ordutik hona, nafarrek urtero argitaratu dute, eta pixkanaka elkarte eta erakunde gehiago joan dira proiektu honen inguruan biltzen.

2001. urtean Nafarroan eta Buruntzaldean katalogo bateratua banatu zen. Beranduago, Oarsoaldea, Donostia, Eibar, Elgoibar eta Bizkaiko zenbait herri eta mankomunitate batu zitzaizkien.


Aurten, lehen aldiz, Euskal Herri osoan hedatuko da, Iparraldean EKEk (Euskal Kultur Erakundeak) zabalduko baitu Euskarazko Produktuen Katalogoa. Horregatik, gurasoei zuzen-

tzen zaien gutuna hiru hizkuntzatan dator (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez). Nafarroako zenbait herri euskaldunetan, ordea, euskara hutsean egindako edizioa banatuko da.

LEHENIK, NAFARROAN

“1997an sortu zen katalogoa Nafarroan; aurten, Euskal Herri osoan hedatu da”

Euskal Herri osoan zehar, 220.000 ale banatuko dira 0-16 urte bitartekoan artean. Hauetatik 89.000 Gipuzkoan hedatuko dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesari esker. Buruntzaldean 8.600, lehengo urtean baino 200 gehiago. Usurbilen 800 ale banatuko dira.



05-06

MUSIKA



EUSKARAZKO produktuen katalogoa

Musika Informatika filmak
liburuak Aldizkariak
Jostailu eta jokoak

INFORMATIKA



FILMAK



LIBURUAK



ALDIZKARIAK



JOSTAILU
ETA JOKOAK



BURUNTZALDEA

Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria,
Hernani, Urnieta eta Usurbilgo Udalak.
Euskarako Batzordeak

Jaialdi atsegina eskaini zuen Mikel Urdangarinek

NOAUA!tik antolatu den Kultur Astea ez da oharkabea pasa. Ekitaldi denetan lagun ugari bildu da-eta. Datorren urtekoa ilusioz prestatzeko indarrak hartu ditugu. Baina 2006ko Kultur Astea iritsi baino lehen, ekitaldi gehiago antolatuko ditugu, noski. Begibistan da Santo Tomas eguna, Usurbilen abenduaren 18an ospatuko duguna. Ez hutsik egin!

Estrainekoz, film laburrak ikusteko aukera eskaini dugu Usurbilen. Akaso horregatik, asko izan ziren azaroaren 15eko ilunabarrean Sutegira hurbildu zirenak. Film laburren proiektzioan bezalaxe, Koldo Huegunek eskaini zuen hitzaldian ere herritar asko izan ziren. Azaroaren 17ko iluntzean, Koldo Huegunek Khan Tengriko espedizioaren nondik norakoak azaldu zituen hitzez. Ondoren, bideo emanaldi bat ikusteko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Ez hori bakarrik. Iaz, Aitor Alkortarekin Komunism mendira egindako espedizioaren berri ere eman zuen Koldo Huegunek.

“Dana” diskoaren aurkezpena

Mikel Urdangarinen tankerako artistak gutxitan ikusteko aukera izaten da gure herrian. Hori dela eta, lagun asko hurbildu ziren kiroldegira azaroaren 19an. "Dana" diskoan oinarritu zuen kontzertua baina aurreko diskoetako kantuak ere eskaini zituen abeslari zornotzarrak.



URDANGARINEK 300 LAGUN BILDU ZITUEN OIARDO KIROLDEGIAN.

Jende ugari NOAUA!ren Kultur Astean



FILM LABURREN PROIEKZIOAK LAGUN ASKOREN JAKINMINA PIZTU ZUEN.



PROIEKZIOAREN AURRETIK, BIDAIA-REN NONDIK NORAKOAK AZALDU ZITUEN KOLDO HUEGUNEK.

Abenduaren 13an, astekariak hitz egiteko bilera irekia

Badator, bai, badator. Abenduaren 30ean banatuko dugu NOAUA! astekariaren lehen zenbakia. Aurrerantzean, hamabostean behin jasotzen genuen aldizkaria astero-astero iritsiko da Usurbilgo etxe eta base-rietako postontzietara.

NOAUA! Kultur Elkartek pauso berri bat ematea erabaki du. Astekari berriaren eta noaua.com webgunearen bidez, informazio-gune sendo bat osatu nahi da. Bigarren helburu bat ere bete nahi da: euskararen normalizazioan eragitea.

Astekariaren egitasmoaz hitz egiteko bilera irekia antolatu dugu. Abenduaren 13an egingo da bilera, arratsaldeko 19:30ean, NOAUA!ko egoitzan bertan. Astekari proiektuaren inguruko azken kontuak azalduko dira bilera ireki horretan.

Astekariari buruzko txostena, noaua.com webgunean

Azken hilabeteotan, astekaria izango dena prestatzen aritu gara. Gure webgunean, noaua.com helbidean, astekariaren

inguruko txostena zintzilikatu dugu (eskura jaso nahi duenak, NOAUA!ko bulegotik pasa dadila). Herritarren partehartzeari garrantzia handia ematen diogunez, denon iritziak biltzeko irrikitan gaude. Beraz, txosten honen inguruan ekarpenik egin nahi baduzu, aurrera. Guk gustura jasoko genituzke gure irakurleen iradokizunak. Txostena irakurri eta zure iritzia helerazi nahi badiguzu, honako helbidera igorri:

erredakzioa@noaua.com

(Bestela, zure ekarpenak NOAUA!ren bulegora ekarri).

Abenduaren 8an, Odol Emaileen Eguna Usurbilen Gaur odol emaile, bihar hartzaile?

Garai batean, istripuren bat gertatzen zenean, etxeoak joaten ziren odola ematera; baina sarritan senitartekoen odola ez zen bateragarria. Horrelakoetan odolagatik ordaindu egiten zen. Hau saihesteko, 1965ean odol emaileen elkarteak sortu zen Donostian. Geroztik, Gipuzkoan zehar hedatzen joan ziren antzeko elkarteak. Usurbilgoa 1974an osatu zen.

NOAUA! Elkarteak noiztik dago martxan Usurbilen?

Patxi Arruti. 1974ko irailean egin genuen lehenengo bilera, deialdia egiteko, eta 25 lagun bildu ginen. Urriaren 12an edo 13an hasi ginen odola ematen. Eta ordutik gaur arte.

N. Beste herri batzuekin alderatuta, usurbildar asko al dira odola ematera hurbiltzen direnak?

P. A. Ondo gabilta. Esan beharra dago herri handiek alderatuta herri txikiak ondo ibiltzen direla, jende gehiago biltzen baita. Eta gu nahiko ondo gabilta: OMEk (Osasunerako Mundu Erakundea) esaten duenez, mila biztanleko 50 emaitza egon behar dute; eta gu hortxe-hortxe ibiliko gara, ia 60ra iristen gara.

